

*Juan Murua*  
*Gabiria, Gipuzkoa*

Aurkibidea

## Biografia

Gabirian jaioa. Sei urterekin hasi zen eskolan. Mutiko zela harrapatu zuen gerrak. Baserriko bizimodua eta garai bateko erromeriak gogoratzen ditu.

## Zintak

### GAB-002

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:**
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

# Pasarteak

## 1. Sei urterekin eskolara

- **Erref:** GAB-002/001
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:15

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

<p>Sei urterekin hasi zen eskolara. Lehenengo irakaslea erdalduna izan zuen. Gau-eskola zer zen ere probatu zuen. Eskolan ikasitakoak eta mutil bati gertatuak kontatzen ditu. Gaztelaniaz egiten zuten eta errespetu handia zieten irakasleei.</p>

### Transkripzioa

-Gaztetan eta, eskolako garaian, hemen ibili ziñen?

-Egoaldi ona zanen ondo, txarra zanen zakue buruti behera sartu ta, ordun ez zeoan oaingo zeaik.

-Kontau zazu zenbat urtekin hasi ziñen eskola, ze eitten zendun ta, ze ordutegi zendun ta hori dana.

-Ni sei urtekin eskola. Goizen aittekin eskola jun nittuan, aittek eaman niñun eskola, ta rekreoako irten nitzenen, han paete bat zeok, ta handik salto ein ta etxea etorri nittuan, goizen. Bi ordu bakarrik pasauko nittuan aurreneko eunen. Atsalden ez nittuan jungo ta.

-Egunero-egunero ez zineten jungo.

-Bai, egunero juten giñuztean. Egunero. Aurreneko maisue Don Cesareo izena zona, erdaldune huan, ta harrekin pixkaten. Ta gero hua jun ta besta bat. Hua hamabost eunen eo eon huan, Antonio. Ta harrekiñ. Gero ia, hasi zazpi urteti, eskola asko ez giñuztean jun baiño, geo erdeaz ta, asko ez giñuztean juten baiño, gau eskola ta. Geo maixu batekin, Albizturkoa, Mujika, Juan Mujika. Harrekin ibilli giñuztean. Hura maixu ona huan, euskaldune ta maixu ona. Guk erdeaz ez gendikiuan, ta harrekin entendittu giñuztean.

-Ze ikasten zenduen?

-Ikasi? Harrekin, matematika, o problemak izaten hittuan ordun, ta gero Don Quijote hori. Hortik benga! [...]. Don Quijote asko. Diktadoa eitten zian, harrek leitzen zian ta guk pizarran. Geo geografie ta. Mapa ta holako asko ez giñuztean, baiño kantau ta geografie asko.

-Buruz ikasi're asko, ezta? Ibaiek eta.

-Buruz. Probintzik eta buruz, horik danak. Buruz gehiena dotriñea.

-Erderaz o nola eitten zizuen?

-Erdeaz. Maixuk erdeaz eskolan. Enteintzen ez bazan, ba ordun euskeraz, esplikazio bat. Geo hurrana izaten genduan, beak premia jartzen zian, ta etxea koaderno bat ekartzen genduan. Koaderno bat izaten hoan: alderdi batetik problemak, bi o hiru problema, haak eaman behar izaten giñuztean etxen einda. Ta beste aldetik ejertzizioa. Ejertzizioa beak jartzen zian zekati hitz ein. Bat bahuan mutiko bat, jartzen zian igual, saski batek zeuzkela, zumekin eindakoa izaten zala, ertza zeukela, ta holakok jartzen zian. Beak erderaz. Baten behintzat hoan, xextokatik "mimbre" ta geo "borde". Ta hurrengo eunen batek hala eaman zioan: "borde, daukenak gorde, ez daukenak ke se jode". Maixui! Geo berotu zian! Ordun jo eitten huan e! Horrek ez zian asko jotzen baiño...

-Zuek beai gaiztakerik eta, asko?

-Maixui? Ez. Hor errespetoa zeoan. Maixue huan hura. Harri ez zeoan gaiztakeriik eitteik. Ona huan baiño, harrek eskolan...

## 2. Gau-eskolan ibilia

- **Erref:** GAB-002/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:06:05

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena:**

<p>Hamabi urte zituela, gerra hasi berri zegoela, tarteka joaten zen eskolara etxean ere lana izaten baitzuten. Gau-eskolara hasi zen, iluntzeetan ordu eta erdiko saioa izaten zen. Han ikasten zituzten gaiak aipatzen ditu; fabulak asko erabiltzen omen zituzten.</p>

**Transkripzioa**

-Ta geo hola, hamabi urte. Gerrea hasi zanen hamabi urte. Etxeko lanak'e ein ein behar, ordun ez zean. Eskola batzutan juten giñutzean, beste batzutan ez ta... Gau-eskolaa, geo gau-eskolan pixkat.  
-Zer zan gau-eskola?  
-Gau eskolan hutse eitten gendun.  
-Ordutegie zein zan?  
Ordutegie, ordu ta erdi izaten hittuan, illuntzaan. Eskolan. Diktadue ordun'e, ta problema ta matematikako zea hoik pixkat eta... gaiñontzen. Liburue, entziklopedi hori izaten hoan, ta geo asko Iriarte ta Samaniegon fabula horik'e bai. Geo ordun eskolan bahoan, eskolak amerikano batek ein zittuan, Balentzategik dirue emanda, harren eskola jun giñtuan, eskola ederrak zerean, neskanak aparte izaten hittuan, mutillek eta neskanak aparte. Eta biblioteka bat zean, orduako liburu askokin. Samaniego ta, Iriarte ta, fabula zea horik. Horikin. Horik ikasi, asko buruz, ta esnezalen kontuk eta, "Cuento de la lechera" ta horik, horik danak buruz ikasi giñutzean guk. Holakok. Igela ta irie ta, holako horik. Horik onak dittuk, horik egik dittuk, gehienak. Otsoa ta ardie, errekan ude zikintzen ziola ta. Horik danak ordun ikasi giñuztean. Geo pentsatzen dek eta, zenbait egi bai, askotan aitzikie behar danen, eozain mouz billatzen dek.

**3. Baserriko lanek lehentasuna**

- **Erref:** GAB-002/003
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:06:50

**Gaia(k):****Laburpena:**

<p>Hiru anai ziren eta eskolatik etxeratzean, hiruren artean banatzen zituzten lanak. Soroan eta ittulan aritzen ziren, eskola baino aurreragoko lanak izaten ziren.</p>

**Transkripzioa**

-Bestela, etxen ta zer bizimodu? Zer lan eitten zenduen? Nola banatzen zenduen?  
-Etxen bizimodu ona ez ordun, urte txarrak hittuan ta. Eskola juten bagiñen, etxea etorri ta lana jakiñe eukitzen genduan. Gu hiru anai giñuztean, mutillek, eta bakoitzek bere lanak etxea etorritakon. Haek eindakon meindea. Ta geo errosarioa luzea. Meindea motza. Horik izaten hittuan. Ordun soron ta, ittulan ta, behien aurreti ta. Lana zanen, aurrena etxea, geo eskolaa. Hola.

**4. Garia egin eta sagarrak saldu**

- **Erref:** GAB-002/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:10

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

<p>Garai batetik honako aldaketa aipatzen du. Ogia jateko garia egin behar izaten zuten. Sagarrak saltzera ere joaten ziren, kuadrillan, astoa hartuta, oinez Bergarara, Oñatira edo Legazpira, esaterako.</p>

**Transkripzioa**

-Garai haitatik honea diferentzie haundie?

-Garai hartati honea, diferentzie ikeragarrie, ikeragarrie. Ordun ogie jango bazan garie ein behar zian. Ta artoa jango bazan, artoa eo, taloa jateko. Oaiñ horik etxea einda ekartzen zituek. Geo sagar garain sagarra bildu ta, hori're bai. Sagar saltzea ni gazteik juten nittuan, Oñatia hemendik oiñez. Hamabost bat urtekin jungo nittuan ni Oñatia, goizen bosteterditan astokin irten, eta beatzitan o hola allatzen giñuztean hautza. Bosterditan irten ta beatzik aldea. Koadrilla juten giñuztean, igual hamar-hamabi laun, bakoitze bere astokin, sagarrakin. Oñatia ta, Bergara're bi aldiz eo jun nittuan, oiñez hemendi Bergaraa. Ta Zumarragaa ta Legazpira astero, ia astero. Aitte-ta ez zerean etxen, gerran horti aurea junda hittuan, Bizkai alden, ta aittona ta amonakin, ta ama. Gu mutikook. Ahal zan modun. Ordun ez zean, dirua ekartzu eta afaltzea jun behar det eta, holakoik!

**5. Erromeria arratsaldeko argitan**

- **Erref:** GAB-002/005
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:10:48

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena:**

<p>Erromeriak ezagunak izan ziren Gabirian. Arratsaldeko argitan hasten zen soinu-jolea soinu-a jotzen eta iluntzen hastean, kanpaia jotzen zuten eta soinu-a isiltzen zen. Batzuk etxera eta besteak tabernara meriendatzera joaten ziren. Inguruko herrietara ere joaten ziren, Segurako prozesiora Aste Santuan, besteak beste. Urrutirako ez zuten joerarik, Tolosako inauterietara behin. Orduko pasadizo bat kontatzen du.</p>

**Transkripzioa**

-Erromerik eta?

-Erromerik hemen, Gabirin, hoixe beti ezautu genduan. Gerra urte hartan, ordun ez hoan eon erromeriik. Baiño gero gerrea bukau ta ondoenen beti soinu-jolea herrin eoten huan. Atsalden argitan hasten hoan, negun lehentxeo, ta udan beandugo. Ilun ixtanten, aimarikok esaten huan, ez zekiat zer dien dakian, kanpaia jotzen zien ordun, elizan, ta errezaue eitten hoan. Igurdin hamabitan'e bai, jotzen zien. Hamabitakoa esaten hoan. Ta geo illuntzaan kanpaia. Ta hua jotzen zonen soinue ixiltzen hoan, illun ixtanten, ta etxea. Etxea batzuk, eta beste batzuk taberna. Tabernan'e, meindatzea ta hola, ez hoan juten, gu bezelakoik ez. Pikun batzuk, ta ardoa erdi mindutakoa o erdi ozpindutako ardo pixkan bat, ta kakauean batzuk.

Haak jan ta etxea. Geo, inguruko herrita're bai: Legazpia ta, Segura Aste Santun, Aste Santun prozesioa Segura juten giñuztean. Hemen, ingurukok. Zumarraga, Aztiria asko, Aztiri barrio horta, horrea asko. Hor soiñujolek eta eoten hittuan, Eskorta esaten zioena, Aizpeko bat huan, ta harrek udan beti jotzen zian soiñue, ta hautza. Koadrillan jun ta, atzea koadrillan etorri ta hola.

-Bestela, urrutia ez ziñeten jungo, Donostia ta holakoik.

-Karnabaleta behin, Tolosa, jun giñuztean. Lekuik ez trenen sartzeko.

Batzuk txintxilika, beste batzuk aurren jarrita jun hittuan, kanpon. Aurren jarrita. Behin, karnabaletan. Akordatzen neok, hantxe nahiko parre ein genduan, plazan zezen enbolatu hoitakok zerean. Han gendean ikusten, ta mutil kuadrilla batek zezen horri heldu zien isatsetik, eta bota ein zien, zezena lurrea. Agoazille jun ta makillekin jotzen ai huan mutille, ta zezenak atzetik etorri ta jo ta bea bota zian, hankaz gora. Nahiko parre ein zian jendek. Gaiñantzen, Santiotan Billafranka juten bahitzen, hori geroxeo. Ta Beasaiña urten behin, juten bahitzen... ez zeoan besteik.

## 6. Autobusez Ordiziako azokara

- **Erref:** GAB-002/006

- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:10:48. **Bukatu:** 00:11:38

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

### Laburpena:

<p>Azokara Ordiziara joaten ziren. Autobusa bazuten eta hark behiak ere eramaten zituen. Gehienetan amona joaten zen azokara erosketak egitera.</p>

### Transkripzioa

-Ta peria?

-Peria, Billafranka bai, Billafranka feria. Baiño, autumubille bazan, Barretxe esaten zioena, hemen aurreneko autubusetakoa hura izango huan.

Autubuse huan, baiño harrek txahalak eta dana eamaten zetuan. Gaiñen hankak lotuta igual, ta beheran'e igual lekue baldin bazeuken jende arten, ta txerrikumak eta dana. Baiño, peria gehienen amona juten huan. Ordun ez huan etortzen honea zeaik, eta asteako ta behar zana o, hamabosten behin eo, kafea o, txokolatea o, zerbaitt, etxen behar zana. Zai eoten giñutzean, amona peritti etorri zai. Harrek txokolate pixkat o ekartzen zian, ta hola.

## 7. Neska-laguntzak

- **Erref:** GAB-002/007

- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:12:09

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena:**

<p>Neska-laguntzak egiten zituzten eta herriko neskek kanpoko mutilak nahiago izaten zituzten sarritan, harrika ere hartzen zituzten inoiz herrikoak.</p>

**Transkripzioa**

-Ta neska-launtzeik eta?

-Neska launtzak eta, eitten hittuan, ordun. Harrika eman'e bai, mutillei. Neska launtzea jun ta harrika igual. Askotan, kanpokok baldin bazien, herrikok, kanpoti etorritakok neska launtzea juten bazien, herrikok zaitu ta harrika igual ematen zien. Ta hola. Neska launtzak, batzuk izaten hittuan beti juten zienak, ta beste batzuk beti taberna juten zienak. Neska-launtzaik eitten ez zuenak.

**8. Esnea saltzera Ormaiztegiara eta Zumarragara**

- **Erref:** GAB-002/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:14:00

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

**Laburpena:**

<p>Ganadu asko izan dute beti eta etxeko esnea Ormaiztegi eta Zumarragara saltzen zuten. Orduan garaiz jaikitzen ziren. Gaur egungo eguneroko bizimodua eta irakurketarako duen zaletasuna aipatzen ditu.</p>

**Transkripzioa**

-Goizetik gauea zer eitten zenduen?

-Goizetan, lehenau, guk ganau asko euki izan deu beti, eta ia hogei urten esnea. Behiek etxen jetxi, eta etxeko esnekin Ormaztegia ta Zumarragaa. Ia hogei urte. Goizen jeiki ein behar ordun, ordun ez zean lo eitteik nahi zan arte. Oain berriz, oain lasai. Oain goizen zortzik alde arte o aspertu arte. Ni jekiko nitzekena, baiño jeikita're ze ein haundiik ez ta. Geo, bi o hiru behi're badauzkeu, ta haek pixkat jana eman, ta haek pixkat kaso ein. Egoaldi ona baldin badau basoti buelta bat ein, bason pixkat piñuk o zuhaitzek nola daren beittu, ibili pixkat. Ta apetittu ona ta bazkaltzeko pronto. Bazkaldu ta geo siesta, eunero siesta pixkat. Ta gero, leittu. Nei leitzea asko nola gustatzen zaten, beti leitzen det, beti leitzen det nik. Andrea ta aspertu arte, ez omen diot kasoik eitten, beti leitzen aitzen omen naiz ta, nik ez omen diot kasoik eitten ta. Baiño leittu asko. Ta ohia garaiz, beatzik aldeako ohia, ta lo seittun. Geo, goizen lauek alden, jenealen orduako nahiko lo einda esnau, ta ordun radioa jarri, ta ze berri daun eo pixkat zeatu ta. Jeikiko nitzekenen, behin seiek o zazpik ezkie, jeikitzeke gogokin.

**9. 'Lazkao Txiki'rekin bertsoan Lazkaon**

- **Erref:** GAB-002/009
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:23

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena:**

<p>Gaztetan bertsolaritzarako zaletasun handia zuen. Hogeitazazpi urte inguru zituela <em>Lazkao Txiki</em> rekin Lazkaora bertsotara joateko deia ere egin zioten. Hastea kostatzen zitzaion izugarri, lotsatu egiten baitzen, baina gero nahiko txukun moldatzen zen. Ehiza ere gogoko zuen baina ezkondu ondoren lan ugari izan du eta baztertu egin behar izan zituen.</p>

**Transkripzioa**

-Ta bestelako afizioik? Pelota eo.

- Pelotan ez, ez afizioik, eta balio're ez asko. Gaztetan, pelotako, ez, afizioik... Gaztetan bertsotan, pixkat. Bertsotan bai. Aztiria ta juten giñenen, gaztetan, hogeitazazpi urte eo inguru hortan, bi aldiz abixau zien nei Lazkaotik, Lazkao Txikikin batea bertsota juteko. Bai. Lazkaokok, gure zerbait pariente eitten zana, bat Beasaiñen maixu zeon, herriko maixu, ta harrek bi aldiz abixau zian. Lazkao Txikik'e poliki eitten zola, ta esan zioela nik bertsotan oso poliki eitten nola ta, San Prudentziota juteko. Nei bertsotan hastea kostatzen zat izugarri, behin hasi ezkio, behin lotsa hori bota ezkio, geo kitto. Baiño hasi ezin, iñola're. Herrin'e bai, plazan ta iñoiz, hola, baiño ezin hasi. Ta geo kitto. Behin ezkondu nitzenen... Ehizeako nik afizio pixkat, ta ehize ta bertsok, ezkondu nitzenen kitto. Lana, lana besteik ez. Dana lana.

**10. Ehizan, erbitan eta oilagorretan**

- **Erref:** GAB-002/010
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:18:15

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena:**

<p>Ehizan, erbitan eta oilagorretan ibiltzen zen gehienbat. Ehizako kontuak kontatzen ditu. Ezkondu aurretik Palentziara joan zen ehizara autobusez. Eper harrapaketan ibili ziren eta berak bota zituen gehien. Usotan ez ziren askorik ibiltzen. Kartutxo gutxi izaten zen eta tiroa kontuz bota ohi zuten.</p>

**Transkripzioa**

-Oain ehizeako?

-Ehizeako oain'e afizioa, afizioa bai. Oain ia kasi pena ematen dit, hok ehizen ta. Lehenau, txori bat ikusi ezkio, etxe inguruan ez zan ezer geatzen. Baiño oain zozo bati hola tiroka eittea, oain pena. Oain beste modu batea. Lehenau oilagorretan gehiena, ollagorretan gehiena. Ta erbitan'e bai, iñoiz. Txakurrekin ta, hemen auzokoa, harrek afizio haundie erbitta, ta. Baiño nik ezin. Esan, hementxe eon hai, bide-kurutze hontan, eon hai, eo eon zaittez, eta hemen geldi eon. Ni, denbora pixkat pasatzen zanen ezin eon, ezin, ta aldein, ta geo "nun hitzen ba?". Ni alde einda. Erbie han pasau ordun, baiño.

-Irteeraik eo eitten al zenduen?

-Bai, kanpoa, ordun garai hartan, ezkondu aurretik, bi eo hiru aldiz.

Palentzia, Osorno. Hori ze urtetan izango zan? Berroeta hamarren eo, hola, berroeta hamar-hamabin eo hola. Osorno. Lehen esan dean autobus hori hartu, ta jun giñen hautza Osorno. Han eperra asko zeon, eper asko. Gu berrogei laun eo berrogeita bi jun giñen, ta gehiena nik bota nittun, hamalau eper. Hamalu eper, gehiena. Bota ez zuenak'e bazien, ta danakin zozketa ein, ta danak berdin. Ta bikin etxea, hamalau botata, bikin etxea. Gaiñantzen, usota ez. Behin Aizkorrondoa, ta ordun haizek ia eamanen, ta ezer ez, uso bat'e ez gendun bota ordun. Gaiñantzen, hemen bertan, pixkat. Oillagorretan bai, txakurrekin ta ibilli dextente. Hemen bertan. Ordun nola ez zeon ehiztariik. Eskupeta bai, baiño kartutxok'e kontauta. Dozena erdin bat eo uzten bazien, haek tiatzeko bildurrez. Atzo leitzen nion, atzo izango zan, periodikoi, bueltako uso horikatio bazekarren, ta harek'e hala esaten zon, gaztetan kontauta, ta ondo jartzen zanai tiroa, ta besteik ez. Hola gaztetako gure ehizek eta.

## 11. Lehenbiziko irratiak; euskaldunak Londresko BBC irratiak

- **Erref:** GAB-002/011
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:22:08

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

### Laburpena:

<p>Lehenbiziko irratia osabak Argentinatik bidalitako diruarekin erosi zuten. Aurretik, Gabirian bizi zen "amerikano" baten etxera joaten zen Juan irratia entzutera eta handik jakiten zituen gerraren inguruko kontuak. Francoren aldeko kontuak izaten omen ziren nagusi orduko irratietan. Londresko BBC ere entzuten omen zuten. Inguruko baserritar batek gerra garaian Ingalaterrara ihes egin eta BBC irratiak hitz egin omen zuen; inguruko denak batu ziren hura entzuteko. BBCTik hitz egiten zuen apaiz euskaltzale bat ere aipatzen du.</p>

### Transkripzioa

-Radioa ta?

-Radioa, hortxe, izan zanen, aurreneko radioa, diruik ez ordun, gerra ondoren ta, diruik ez erosteko. Gue aitte zanak, Amerikan osaba bat, bueno, nere osaba, aitten anaie, Amerikan, ta radioa ba nahi etxen, berriik jakitako, haek'e kartzelati etorri berri ordun, Francon garaiko kontuak eta. Harri esan, ta harrek dirue bialdu radioa erosteko, Ameriketati, Argentinatik. Harrek dirue bialdu, ta radio bat. Paite zulon hor, paite zulo txiki bat ein ta hor. Enda, radiok, gehiena ordun aitzen genduna, hemengok danak kontu bat, oaingok bezelaxe, Francon aldeko kontuak danak, ta BBC Londreskoa, hura ondo aitzen zan. Beti illuntzaan hura. Hori baiño lehenau, berriz'e, etxen radioa baiño lehenau, hemen, Kuban eo Amerikan eon ta bazan amerikano bat, dirudun bat. Ta harrek bazon radio bat. Ta harrena. Ordun, azkeneko gerra mundial hortan, harrena jaiero juten nitzen. Harrek beak esaten zian, amerikano horrek, "etorri zaitz". Biok jartzen giñen, ta aitzen, zea danak. Nik ordun mapan danak eamaten nittun, nundik noa fronte zeren ta. Hemen, desenbarkuk ein zittuenen amerikanok Afrikan, Romeillek eta, Alamein eta, horko frenteko danak. Hemen'e bai, Rusiko Estalingradutio, horko zeak eta. Schmolenko ta ze general zien. Horik

danak ordun. Harrena jun ta, hantxe. Geo geuk ekarri gendunen, etxeko horrekin, akordatzan naiz behin, gerra denboran hemen gerran ibili, aurrena Bizkai alden, hemengo baserrikoa zan, leitzen'e ez zon jakingo gaiñea segurona, oaindi bizi da, hemen izan zan, jun dan udaizkenen izango zan. Aurrena Bizkain gerran ibilli, eta gero hor harrapau-eo ein zuenen, beste aldea eaman zuen frentea, Francon aldea. Ta hor, Valentziko frenten ihes ein, ta Valentzia pasau zan. Geo ia aurea sartu zienen, frankista horik ia aurea sartu zienen, han ez dakit naranjakin o kargautako barkun bat Valentzin, ta han sartu polizoi bezela, ta Inlaterra. Geo han mekaniko nabal eo ikasi izan behar zon harrek. Bageñikiun hitz ein behar zola, BBCti, ta akordatzan naiz nola eon giñen hemen, ingurukok eta etorri, beste radioik ez zeon hemen, honea etorri ta ingurukok nola eon giñen. Harrek hitz ein zon. Geo ordun, asko, harrek'e BBCti eitten zon, apaize, nola zan hura? Apaiz bat, hura izan zan hemen eutsi ziona, hemengo euskalduntasunei, ez dakit nola zan, apaize zan, oso famosoa zan hura, garai hartan, harrek eutsi zion hemengo euskaldunei ta, pixkat haize berritzen ta harrek. Harrek dotriñan ta politikan, harrek egie ibiltzen zon, ta horrekin eusten zion. Hola, radioa. Gero telebixioa, gerogoko kontuk beiz, ia, hemen. Ordun ez zeon kotxen ta, bakoitzek kotxe baten radioa ta, etxen bi eo hiru ta...

## 12. Txirrindularitzarako zaletasuna, baina bizikletarik ez

- **Erref:** GAB-002/012
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:22:08. **Bukatu:** 00:24:30

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

### Laburpena:

<p>Orduko txirrindulari ezagunak aipatzen ditu. Eurak ez ziren gehiegi ibiltzen bizikletan; reketeek bizikletak kendu omen zizkieten. Normalean oinez ibiltzen ziren batera eta bestera; ondo zimeldutako mutilak omen ziren. </p>

### Transkripzioa

-Ziklismoa ta segitzen zenduen?

-Bai. Buelta Frantzia ta, orduko Gallardo ta, Trueba ta, Cepeda ta. Onak. Ordun zienak, belgak eta bazien, onak. Nola zien hak? Belgak eta ordun hor ibiltzen zienak, onak. Ricardona ta, horik hemengo zeak. Ezkerra. Geroxeo berriz, Bermit eta horik. Bai. Nik leitzeko beti gogoa, ta periodikoik eo izaten banun, beti karrera zerbait. Hori bai, nola zebillen eo. Gero ikustea ta, hola. Ta ibilli're bizikletan oso gutxi. Bi bizikleta giñutzen, gerra denboran. Beno, osabak, bi bizikleta zittuen, eta eak horti aurea jun zien, eta reketek eaman ziuén bik, eta gu bizikletan ibilliko giñenen, eta han ibiltzen zien eak, gure bistan, gu eskola juten giñenen, plazan bueltaka, gure biziketan. Beti harrapau ta etxea, harrapau ez, gerek zien, harrapatzea ez zan, "etxea eaman zetua hok", ta hola esaten gendun, baiño behin'e ez giñen atrebittu. Bat ibiltzeko gauza ez zanen utzi ziuén etxea ekartzen, ta bestea're halamuz. Hondauta bik.

-Lehen, karreteraik eta ez zan garaien, dana mendiz. Hemen karretera noiz ein zan?

-Karreterea nik hemen beti ezautu det. Etxe ondón. Ormazteiti kamiño hau, oso ona ez ibiltzeko, baiño ba, bizikletan ibiltzeko lain bai, hemendi Motxorroako hau'e bai. Hori beiz hau baiño lehenau eindakoa, beheko hori.

Ta gero hau, hemendi Gabiriako adar hau, hau gero. Neu bizikletan. Baiño Zumarragaa ta Legazpia ta oiñez, oain baiño kilo gutxigokin ta goorrage. Ta udan segan, latz. Ta kilo gutxi, baiño ondo zimelduta.

### 13. Eskolako jolas-orduan instrukzioak

- **Erref:** GAB-002/013
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:43

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

#### Laburpena:

<p>Eskola garaian, hamabi urte zituela, jolas garaian falangistek instrukzioak eginarazten zizkieten. Egurrezko fusilak ditu gogoan, haiekin egiten zituzten instrukzioak. Orduko pasadizo bat kontatzen du.</p>

#### Transkripzioa

-Gerra garaian zer?

- Hamabi urtekin eo hola, eskola, gerrea irten zonen hamabi urte nik, ta eskolaa juten giñen. Ta, eskola lehen esan dean bezela, eskolako lan horik ein, ta rekreoa goizen izaten zan ordu laurden bate o ordu erdi bat, eta atsalden beste ordu laurden bat eo ordu erdi bat eo hola. Etorri zienen rekete o falangista o hok, sartu zienen, eskola jun ta maixui esan zien rekreoko denboran instrukziok eiñ behar giñutzela, guk, mutikook. Instrukziok. Napar bat zan aitzen zona, maixue're bildurtu eitten zan ordun, ta ekarri ziu en egurrezko fusillek eta korreajek. Gogon dauket. Fusillek eta baionetea, egurrezkoa, eta haekin ibiltzen giñen plazan, instrukziok eitten. Aurreneko eune eo bigarrena izango zan, eman ziu en bakoitzei korreajek eta bakoitzei fusil hori baionetekiñ. Esan ziu en: "beno, fusillek jaso horrea, eskola baztarrea, ta korreajek eaman etxea, eta bihar ekarri". Hala, ekarri giñutzen etxea, ta hurrengo eunen jun, ta rekreokon formauta jarri giñutzen, plazan, eta bat zeon korreajeik bae. Esan zion horrek: "hik nun dek korreajea?". Ta mutille ixillik, ixillik mutille. "Hik korreajea nun dek?". Ixillik mutille. "Ez al dek aitzen, korreajea nun dean!". "Aittek astoi kabestruk ein dio", esan zioan atzea. Aittek, korreajekin, harrek astoi kabestruk ein. Harrek probetxue atea zioan. Ta geo berrik eman beharko zioan harri. Hola ibilli giñuztean gu instrukzion, soldadu juteako. `Cara al Sol´ kantau, ta holakok.

### 14. Soldadutza denboran ospitalean, Burgosen

- **Erref:** GAB-002/014
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:26:43. **Bukatu:** 00:31:08

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

#### Laburpena:

<p>Soldadutzan pasa zuen denbora apurra ospitalean pasa zuen. Burgosa

egokitu zitzaion eta han katarroa harrapatu eta ospitalean egon behar izan zuen. Izeba moja bat zuen han eta hari esker bueltatu ahal izan zen etxera. Denbora gutxi igaro zuen arren, gosea pasa zuten. Hango gertaerak kontatzen ditu. Herrikorik ez zen besterik joan berarekin, baina inguruko herrietako jendea bai. Haiek izendatzen ditu.</p>

### **Transkripzioa**

-Soldaduskan izango zinen zu?

-Soldaduskan, bai. Soldaduskan denbora gutxi pasau nian, ta pasau nittunak gehiena ospitalen. Martxon jun giñen, zuka o nola? Martxon jun giñen gu, eta urte hartan izugarrizko hotzak. Ni berrogeta bosteko kintoa, eta zerean ni juteako berrogeta bateko, bi, hiru, lau eta gu bost. Ni Burgosa Academia de Ingenieros, tokau nitzen. Ez zeon danantzat ohiik eta. Usok eondako ganbara batea eaman giñuzten. Elurre eitten zon, ta ganbaran teillak erdik hausita, usok eonda, hautsekiñ goizen ohiak eitten hasten giñenen ez zan ikusten alkar, hautse ta uso ziriñe eonda ta, harrapau non nik ordun katarro bat, bronkiotakoa o ez dakit ze, beste aldeia jun behar detenen, Itsasokoa, hemen Zaldibikok eta asko giñen, Lazkaokok, eta Itsasondo, Zaldibikok'e bai hiru-lau, Aramakok'e bai. Ta hala, katarro horrekin, ta kalenturakin, Itsasoko hori, karnizeroa izatez, geo Bilbaon pueston eon zan, ta harrek esan zian, "ron dek oso ona katarroa pasatzeko, ron dek". Jun ta holako botilla txiki bat, nik ez dakit ze izango zan hura ordun garai hartan, ron izenen eozar gauza igual. Ean deu, ta hurrengo eunen ospitalea ni. Gau guztin ezta begiik bildu're. Ospitalea jun ta bronquitis neukela. Hautza juteako, ia hillabete bat bai, instrukziok eta pixkat eitten, eta geo behin hautza jun nitzenen, han izeba bat baneuken moja bat, ta han mojak zeren hospital militarren, ta izeba horrek haekin eon zan ta etxea bialtzeko modue ein zuen han. Papelak ein zittuen, eta etxea bialdu nittuen; abixauko ziela baiño gehiau ez die abixau. Ta hola, gustoa. Soldaduskea ez non hartaiñoko, denbora gutxi, pasauko nittun, martxon jun ta ia maiatzen etxea etorriko nitzen.

-Zenbat denbora zan, bestela, garai hartan?

-Urte ta erdi. Baiño lau-bost kinta genden ta, goseek, goseek. Han nola eosten giñun, kalen. Han etortzen zien, ogi erdikin ta, goseek eta, dirue ordun jun berrin bagenduken ta, haei ogie eosten giñun, diru asko bae. Han lehen zerenak, bat azpeitiarra, ta harrek nola esan zian: "horidi ez iek ogiik eosi, horik esken biltzen duen ogie dek hori saltzen duen hori. Hor esken ematen diena saltzen diek horik. Hoidi ez iek eosi ogiik". Ta halaxe. Han taberna bat bazeon gertun, ta hautza jun, ta han eskabetxeko sardiñan batzuk, eta ardoa, ardoa bastante ona eoten zan han, ardo beltza, lodie ardoa, lodi-lodie, baiño ardoa. Ardokin eskabetxeko zerbaite, dirue zeon arten. Oaindik baittut nik han, ordun, nik'e asko ez, ta gutxigo zonak eskau ta eman dirue, orduako duroa, ta oaindio atzea bueltauko ziala, baiño oaindi kobrau bekoa.

-Jende asko jun al ziñeten, inguru hauetatik, soldadu, zurekin batea?

-Bai, bai. Hemen, herrikoik iñor ez, baiño Legazpikok bai, nere lehengusu bat. Eta gero Aramakok bi o hiru bai, Itsasondokok'e bai, Itsasondokoa oain Ormaztegin dauna, bizi dana bat, Aramakok bi behintzat bai, Zaldibitti hiru ta hiruek Mendizabal, Mendizabalak zien. Lazkaotik're bai, hura bat Murua, ni bezela, ta bestea... bestea ahaztu're bai ia. Bestea Lapitzondo.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)